



ORAIN HASI BIHAGU



Doinuaren jasotzailea: Antonio Zavala.

Bertso honen egilea: Juan Frantzisko Petriarena "Xenpelar" (1835-1869 Erreterria, Gipuzkoa).

Doinuaren berri

Grabatu den bertso doinurik zaharrena da. Bertsolari baten lehen grabazioa Columbia disketxeak argitaratu zuen 1927 inguruan. Grabazio horretan "Asteasu" eta "Txirrita" bertsolariek doinu hau erabiltzen dute.

Bertsoaren berri

"Xenpelar" eta "Ardotx" bertsolariek bat-batean egindako bertsoaldiaren lehen bertsoa da hau. Lezon (Gipuzkoan) ari dira bertsotan eta inguruan begira dituzten neska-mutilekin sartzen dira. Xenpelarrek esaten du, bertsoen aitzakian, pozik arrimatzen direla neskak mutilen ondora. Ardotxek erantzun, mutilak ere ez direla joaten nesken ihesi.

Orain hasi bihagu
asunto **berrian**
zer gertatutzen zaigun
Lezoko **herrian**
neska gazteak daude
hemen **alegrian**
kantaren aitzakian
mutilen **erdian**.

